

## BESTELAKO XEDAPENAK

### OSASUN SAILA

1996

*AGINDUA, 2020ko maiatzaren 14koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Lehendakariari eskatzen baitio Euskadiko Herri Babeseko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea (LABI), modulatze, osasun-zaintzako fase berrira egokitze.*

Segurtasuneko sailburuaren 2020ko martxoaren 13ko Aginduaren bidez erabaki zen (martxoaren 14ko EHAA, 52. zk.), Osasuneko sailburuak eskatuta, Euskadiko Herri Babeseko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea (LABI), formalki aktibatzea, COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortutako egoeraren aurrean.

Larrialdia zuzentzea eta koordinatzea, printzipioz, Segurtasuneko sailburuari dagokio, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuak 11.h) artikuluan ezartzen duenaren arabera. Manu horrek aurreikusten duenez, 35. artikuluan jasotako kasuan, hondamendiko larrialdi-egoeraren deklarazioaren aurrean, Lehendakariak bere gain hartuko du larrialdi-jarduera guztien zuzendaritza, eta zuzenean bere mende geratuko da Euskadiko Herri Babeseko Planaren antolamendu-egitura. Halaber, «Larrialdiei aurregiteko bidea (LABI)» deritzan Euskadiko Herri Babeseko Plana onartzen duen ekainaren 24ko 153/1997 Dekretuak eranskinean –eta, zehazki, IV. tituluan– jasotzen duenez, Lehendakariak bere gain har ditzake babes zibilaren goi-zuzendaritzako eta hura koordinatzeko eginkizunak, arrisku-egoera edo izandako kalteak asko hedatu direla edo oso larriak direla ikusita, Lehendakariak larrialdiaren zuzendaritza bereganatzen duenean.

Aurrekoan oinarrituta, eta Lehendakariaren martxoaren 13ko 6/2020 Dekretuaren bidez (martxoaren 14ko EHAA, 52. zk.), Lehendakariak Euskadiko Herri Babeseko Plana, Larrialdiei urregiteko Bidea (LABI), zuzentzeko eskumenak bereganatu zituen, COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortutako egoeraren aurrean.

Une horretatik aurrera, Lehendakariak bere gain hartzen ditu Euskadiko Herri Babeseko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea (LABI), jasota dauden larrialdi-jardueren koordinazioa eta zuzendaritza bakarra, COVID-19aren hedapenak eragindako osasun-alertak sortutako egoeraren aurrean.

Pandemia bi hilabetez kudeatu ondoren, haren bilakaeraren egungo adierazleek diote egun geldiarazte- eta gutxitze-fasean gaudela (esaterako, oinarritzko birsorkuntza-zenbakia (R0) 1,75 zen zuzendaritza-batzordea sortu zen egunean, eta 0,77 ingurura jaitsi da 2020ko maiatzaren 11n). Horren azken helburua da, lehenik, kurba epidemiologikoak berriro goranzko joerarik ez izatea, eta, bigarrenik, izaera finalistarekin, normaltasun-egoera batera itzultzea, askatasun indibidual eta kolektiboari gutxiago eragingo dioten prebentzio-neurriekin.

Nabarmendu behar da gure erkidegoaren lurraldean normaltasun berrirako trantsizio-prozesuaren I. fasera igaro garela, maiatzaren 9ko SND/399/2020 Aginduak ezartzen duenaren arabera. Agindu horren bidez, alarma-egoera deklaratu ondoren ezarri ziren Estatu mailako zenbait murrizketa malgutu dira, normaltasun berrirako trantsiziorako Planaren I. fasea aplikatuz.

Lehendakariaren maiatzaren 10eko 8/2020 Dekretuaren bidez, Espainiako Gobernuarekin adostutako aldaketak, zabaltzeak eta murrizketak ezarri dira, alarma-egoera deklaratu ondoren ezarritako murrizketak malgutzearekin lotuta, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren I. fasea aplikatuz, neurri horiek osasun-larrialdiak Euskadin izan duen bilakaerara egokitze aldera.

Horren guztiaren arabera, osasun-larrialdiko fasea gainditutzat jotzen da, zeinaren helburu nagusia osasun-sistema ez kolapsatzea baitzen. Orain, osasun-zaintzako fase bati ekin behar zaio, eta fase horren helburua da epidemia geldiaraztea eta gutxitzea, kasuak eta kontaktuak kudeatuz.

Horregatik guztiagatik, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 80/2017 Dekretuaren 4. artikulua organo honi emandako eskumenen arabera, Lehendakariari eskatu behar zaio, martxoaren 13ko 6/2020 Dekretuaren arabera horretarako eskumena duen agintaritza den aldetik, Euskadiko Herri Babeseko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea (LABI), modulatzeko –Segurtasuneko sailburuaren 2020ko martxoaren 13ko Aginduaren bidez aktibatua–, orain hasiko den osasun-zaintzako fasera egokitze aldera.

Ondorioz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Bakarra.– Lehendakariari eskatzea Euskadiko Euskadiko Herri Babeseko Plana, Larrialdiei Aurregiteko Bidea (LABI), modulatzeko, orain hasiko den osasun-zaintzako fasera egokitzeko. LABI plana Segurtasuneko sailburuaren 2020ko martxoaren 13ko Aginduaren bidez aktibatu zen, COVID-19aren hedapenak eragindako alerta epidemiologikoari aurre egiteko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 14a.

Osasuneko sailburua,  
MIREN NEKANE MURGA EIZAGAECHVARRIA.